

XXIX. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA 2007. URTEAN

EREINTZA ELKARTEKO ESKULANGINTZA SAILA

SARRERA

Urtero ohi den bezala, Euskal Herriko Eskulangintza Azokaren beste edizio bat ospatu dugu Erreterian, apirilaren 28an, larunbata, hasita maiatzaren 1a arte, asteartea. Hogeita bederatzigarrena den azoka hau Ereintza Elkarteak antolatzen du, Erreteriako Udalaren, Gipuzkoako Foro Aldundiaren eta Kutxaren laguntzarekin, eta hasierako asmo eta planteamenduak fideltasunez jarraituz Euskal Herri osora zabaldua dago, egun dauden artisautza interesgarrienak bildu eta erakutsi nahian.

Eta azken urteetan bezala Udal Merkatu Zaharreko "Jose Luis Caso" areto berrituan izan du bere kokagune. Udala erabat birmoldatzen ari den eraikin honek instalakuntzen hobeagotze orokorrarekin batera, barneko espazioa handitu du, artisau gehiago hartzeko eta bisitarien egonaldia erosoago bihurtzeko aukera emanaz. Nolanahi ere, eraikinaren proiektua egiterakoan gure iritzia eskatu izan balitz, denon artean barneko espazioari etekin gehiago ateratzeko modua izango zelakoan gaude.



GAI BEREZIA: OIHALKIAK

Tradizioari jarraituz, aurten ere gai jakin bati arreta berezia eta eremu handiagoa eskaini diogu azokan. Edizio honetan oihalki eta ehungaiei hain zuzen.

Arlo honetan bizpahiru langintzak aipatu nahi ditugu bereiziki: Miguel Angel Mediavillaren TAPIZAK esate baterako. Artisau-artista bilbotar honek, bere ibilbide luzean banakako eta taldeko erakusketa askotan parte hartua da, eta oraingo

bidez berritzen dira. Honekin batera jantzi zibil eta erlijiosoen kontserbazioa, edo eta ehun-piezen inbentarioak ere egiten ditu, esperientzi handikoa den emakume honek.

“Yaganiza” iruñear taldeak berriz, HAMAKEN LANGINTZA erakutsi digute; kotoia bakarrik erabiliaz, neurri eta diseinu ezberdinetako hamakak egiten dituzte, gorputzarentzat oso erosoak suertatzen den, korapilo gabeko irazki baten bitartez.

Hauekin batera beste zenbait artisauen bidez, ehungintza, tindaketa, euskal jantzi tradizionalak, oihal estanpatuak argizari teknikaz,



honetan lau tapiz harrigarrien bilduma bat aurkeztu du “Lau Urtaroak” deritzan gaiarekin. Tapiz tridimentsional hauetan, modu berritzaile, natural eta sormenezkoan adierazita, bolumena eta kolorea ezin hobe uztartzen dira, zetazko eta artilezko materialak, eta akrilikoak ere, erabiliz. Bilduma guztia oso ona izanik, “Negua” adierazten zuen tapizaren errealismoa nabarmendu nahi genuke.

Soledad Santisteban artisauaren OIHALKIEN BERRIZTAPEN lana ere oso interesgarria deritzagu. Ehungintza-tekniken eta berriztapen azterketa eta ikerketan oinarrituz, alfonbrak, tapizak, zutoihalak, xalak, abanikoak, brodatu zaharrak eta edozein oihalki mota, bere lan xehearen

artilegintza, seta margotuak eta patchwork lanak ere ikusi ahal izan ditugu.

BESTE ZENBAIT BERRITASUN

Gai bereziaren inguruko eskulangintzatik aparte, aurtengo azokak beste zenbait berritasun eta bitxikeria eskaini dizkigu. Izan ere edizio bakoitzean langintza deigarrienak edo ikusgarrienak ekartzen saiatzen gara, bertan egokitutako lan-tailerren bidez. Esate baterako:



- **MOSAIKOAREN ARTEA.** Celine Miguel, Donibane Lohitzuneko artisauak gama altuko mosaikoak egiten ditu etxe barneko edo kanpoko apaingarri eta dekorazio gisa. Mosaikoak osorik marraztuta eta tailatuta daude, eta horien kalitatea mosaikoaren artearen funtsezko sustraietan oinarritzen da; hots: kalitate handiko materialak erabiltzea, polikromiarekiko gustua, koloreen distira, eta materialaren taila bizitua marrazkiaren transkripzioan fintasun handia ahalbidetzeko. Normalean beira erabiltzen du, zenbaitetan gresarekin nahastuaz.
- **ZURA TORNEATUA, ERDI AROKO TORNUAREKIN.** Etienne Bortayru angeluar artisauak, sormen handiko piezak egiten ditu mota askotariko zura erabiliz. Eskuekin maneiatzen den tornu elektriko batekin, kopiagailurik eta automatizimorik gabekoa, zura lantzen dijoo pieza orijinalak sortu arte. Hala nola kriseiluak, estilo ezberdinetako ontziak, animaliak, gizairudiak, eta abar. Azoketan berriz, oinarekin eragiten den Erdi Aroko tornu bat erabiltzen du bere lanaren erakusgarri, elektrizitatea sortu baino lehenago zura lantzeko egiten zen moduan.
- **HARZURIAREN ZIZELKETA.** Miguel Angel Jimenez korellarrak, harzuria edo alabastroa lantzen du. Artisautza hau gure artean oso ezaguna ez bada ere, Nafarroako erri-

beherako zenbait herritan XX. mendearen hasieratik tradizio handia duen eskulana da; material hau, igeltsuaren deribatua eta marmolaren itxurakoa, batez ere apaindurarako gaiak egiteko erabiltzen da, zizekatzearen teknikaren bitartez. Normalean, piezak olio-pinturarekin edo ur-pinturarekin margotzen dira akabera emateko.

- **AIZTOGINTZA ARTESANALA.** Cesar Bozal eta José M^a Berasarte bikote lasartearrak, mota guztietako aiztoak, labainak, aihotzak eta abar eskuz lantzen dituzte, gurean ia ezezaguna, baina tradizio handikoa beste zenbait lekutan, den artisautza honekin. Hasi ahoaren altzairutik, egurrezko edo adarrezko kider artistikoraino, dena eskuz egiten dute, pieza bakarrak eta pertsonalizatuak lortuz.

ZABALTZE UNEA

Azokaren zabaltze-ekitaldi ofiziala, apirilaren 28an, larunbata, goizeko 12tan egin zen. Nerea Perez, Ereintzako lehendakariaren ongi etorriaren ondoren, Foru Aldundiko Berrikuntza eta Jakintzaren Gizartearen Departamentuko Zuzendaria den José Ramón Guridi jaunaren hitzek honelako azokek duten garrantzia azpimarratu zuten, eta bere ondoren Erreterriako



Alkateak, Juan Carlos Merino jaunak hartu zuen hitza, Lousada portugaldar hiri anaituaren zenbait agintari ondoan zituela. Ekitaldi ofizial honen segidan, agintari eta bertan zeuden beste gonbidatu guztiak (bere babesa ematen digun Kutxako ordezkariak, Udaleko hainbat zinegotzi eta komunikabideetako ordezkariak) azokaren instalazioak bisitatu zituzten, artisauek erakusten zituzten produktuen kalitatea azpimarratuz.

ARTISAU PARTE- HARTZAILEAK, LANGINTZAK ETA GEOGRAFIA JATORRIAK

Azokaren antolatzaileek urtez urte izan ohi dugun buruhausterik handienetako bat azokan izango diren artisauek hautatzeko prozesua da. Kontuan izanik azokaren barrutiak espazio-muga jakin bat duela eta, beraz, stand eta artisauen kopurua mugatu beharra dagoela. Beste aldetik, Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoa eskuratu ahal izateko, bertako zerrendetan partaidetza duten artisauek gipuzkoarren portzentaia derrigorezko bat bete behar izaten dugu.

Beraz ohiko irizpideak jarraituz, hau da: produktuen kalitatea eta aniztasuna, langintza berri eta interesgarrien aurkezpena, eta Euskal Herriko lurralde guztietako nolabaiteko geografi oreka, selekzio prozedura baten ondoren osatzen da artisauen zerrenda. Hona hemen langintza eta geografia jatorriaren araberrako sailkapena:

Gai berezia: **Oihalkiak:** ehungintza (1); tindaketa eta artilegintza (2), seta margotuak (1); patchwork lanak (2); euskal jantzi tradizionalak (1); hamaken langintza (1); oihal estanpatuak (1); oihalkien berriztapena (1); tapizak (1).

Zura: altzarigintza eta taila (2); jostailuak (2); ezpel artisautza (1); bastoiak (1); titakaduragintza (1); zura torneatua (1); itsas modelogintza (1); zurezko kateak (1).

Otarregintza: gaztain zumitzezko otarregintza (1); zume otarregintza (1).

Burdina eta metalak: aitzogintza (1); bitxigintza (2); esmaltegintza (1); grabaketa (2).

Buztina eta harria: zeramika (4); argintza (1); harzuriaren zizelketa (1); mosaikoak (1).

Beira: beira grabatua edo termogaldatua (2); kainaberaz puztutako beira (1); beirateak (1).



Larrua: pilotak eta eskularruak (1); Larrugintza (2); Oinetakoak (1).

Papera eta kartoia: koadernaketa artistikoa (1); paperaren eskulangintza (1).

Bestelakoak: lore idortuak (1); kodizeak eta kaligrafia (1); ikurgintza eta irudiak (1); adar zizelketa (1); maketak (1); xaboi naturalak (1).

Elikadura: taloak (1); erlazaintza (1); edari biziak (1); konfiteritza (1).

Geografia jatorriaren arabera berriz, Gipuzkoatik (28), Arabatik (6), Bizkaitik (7), Nafarroatik (9), Ipar Euskal Herritik (4) eta Errioxatik (1) etorri dira; guztira 55 artisau. Hauetatik hemezortziren bat berriak, hau da, lehen aldiz Errenteriako Azokara etorritakoak.

Gogorazi nahi dugu ere, Errenteriako azokan parte hartu nahi duten artisau guztiei egiten zaien eskakizunetako bat: beren produktuak salgai ipintzeaz gain, produktu horiek jendarean landu behar dituztela alegi. Izan ere, uste bai dugu haxe dela jendearengan (eta batez ere gazteengan), jakin-minik handiena sortzen den gauzetako bat, eta aldi berean salmenten onurako ere gertatzen dena. Ildo berean ere, 60 euroko erosketa-txartelak zozketatzen dira bisitarien artean, goiz eta arratsaldeko saio bakoitzean, bertako produktuak eros ahal izateko.

HOBEKIEN APAINDUTAKO ERAKUSTOKIA- RENTZAKO SARIA

Urtero ematen dugun sari honen xedea, irabazleei diru-kopuru garrantzitsu bat emateaz gain, artisau guztiak dekorazio deigarria eskaintzen saia daitezen lortzea da, azoka bere osotasunean ahalik eta erakargarriena gerta dadin.

Saria emateko orduan, Gipuzkoako Merkataritza Bazkudearen laguntza izaten dugu, hark izendatutako epaimahaiaren bitartez. Apainketa maila, nabarmen gora joan den neurrian, erabakia gero eta zailago gertatzen joan da, eta lehenengo sariarekin batera, bigarren beste bat ezarri behar izan da epaimahaiaren lana errazagoa gerta zedin. Aurtengo sariduna, Amurrio herritik etorritako Conchi Gómez artisaua izan da, lore idortuekin egindako apainketarengatik. Finalista berriz, Errenteriako Arantxa Pascual izan da, paper eta oihalen bidez apaindutako erakustokiarengatik.

WEB-ORRIA

Gogorarazi nahi dugu web-orria bat badugula. Hona hemen www.ereintza.com orrian sartuta aurki daitezkenak:

Parte-hartzaileak: parte-hartzaileen zerrenda osoa, beren izena, harremanetarako telefono-zenbakia eta garatzen duen artisautzaren argazkia.

Kokapena: azoka non kokatua dagoen eta bertara nola iritsi daitekeen.

Erakusgunea: azokaren barruan stand bakoitzak duen kokapena.

Babesleak: babesleen zerrenda, beren web-orrietarako estekak barne.

Posta: azokari buruzko iradokizunak edo iruzkinak bidaltzeko.

Albisteak: esteka honetan, azokaren inguruan sortzen diren azken berriak gaineratzen dira. Halaber, prentsa txostenak eta komunikabideei eskainitako informazioak bertan agertzen dira.

BUKAERA GISA

Euskal Herriko zaharrena den azoka honek, aurrera jarraitu nahi du bere aitzindaritzan mantenduz, eta bide batez artisautzaren sektoreak egitura ekonomiko normalizatu bat lortu dezan

ahaleginduz. Horrek baldintza jakin batzuek eskatzen ditu: nolabaiteko profesionaltasun maila bat; espektakulo hutsak diren hainbat sasi-azoken orde, taiuzko eskulangintza azokak egin; instalazio egoki batzuk prestatu; eta abar. Eta Erreterria, artisautzaren kokagune iraunkor eta garrantzitsuena bihurtzeko dugun ahalegin honetan, Udalaren laguntza gurekin izango dugulakoan gaude.

Izan ere Azoka bera eta eskulangintza, orhar, etorkizuneko erronka berrietara egokitzeko asmoz, antolatzaileok hainbat urte daramatzagu hausnarketetan, gogoeta jardunaldiak antolatuz, bide berriak urratuz, edo eta eskulangintzaren inguruko foroetan parte hartuz. Ildo horretan, Eusko Jurlaritzak hiru Diputazioekin batera, artisautzarentzat plan estratejiko bat egitea beharrezkoa jotzen dugu. ¡Ia behingoz gauzatzen den!

Azkenik, ospatu berri dugun XXIX. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka aurrera eramatea ahalbidetu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Lehenik eta behin, parte hartu duten artisauei guztiei. Eskerrak ere, etorritako bisitariari, hala nola bere lana eta ardura jarri duten komunikabide eta beste zenbait zerbitzuei, eta nola ez bere babesa ematen diguten erakundeei: Gipuzkoako Foru Aldundiari, Erreterriako Udalari eta Gipuzkoa-Donostia Kutxari. Bihoakie berriro guztiei gure esker beroena.

Foto: Poly.

